



Esp. kodea: 2024PHBP0001

Gaia: Kudeaketa administratiboko teknikaria (2 dotazio)

IRAGARKIA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK

Kudeaketa administratiboko teknikariak- Administrazio orokorra, erdi mailako teknikaria, A2

Kudeaketa administratiboko teknikariei dagozkion Administrazio orokorreko erdi mailako teknikarien azpieskalako (A2) bi plaza, barne sustapenez, eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari dagokionez, 2024ko abenduaren 5ean Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen oinarri-arauen arabera, Alkateak N25/02018 dekretuaren bidez hauxe erabaki du:

Lehenengo.- Behin-behineko zerrenda behin betikotzat jotzea

Bigarrena.- Lehenengo probari dagokionez, Epaimahai kalifikatzaileak, 2025eko ekainaren 19an egindako bileran, hartutako erabakiaren arabera onartutako bost hautagaiak salbuestea eta GAI bezala kalifikatzea.

Hirugarrena.- Bigarren probari dagokionez, dei egitea, epaimahai kalifikatzailearen proposamenez, deialdian onartuak izan diren hautagaiei oposizio aldiko bigarren ariketaren teorikoaren A eta B atalak egitera. Bi atalak egun ezberdinetan egingo dira, zehazki:

A zatiko azterketa (teorikoa) – **Irailak 25**

Galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu

B zatiko azterketa (teoriko/praktikoa) – **Urriak 9**

Idatziz ebaztea gai zerrenda orokorrarekin, espezifikoeekin eta lanpostuari dagozkion eginkizunekin zerikusia duten zenbait kasu.

Ariketa non eta zer ordutan egingo den Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du:

Laugarrena.- Argitaratzea erabaki hau Arrasateko Udaleko iragarki taulan eta webgunean.

Ebazpen honen aurka, prozesutik behin betiko baztertutako pertsonak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate-lehendakariari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoarik jarri berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziosko ezespina gertatu arte. Nolanahi ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Alkatea

Kodea	Q25/00468	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1CB1C.3.ze5c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1CB1C3.ze5c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				